



***Txakur-kakarik
ez gure kale eta
lorategietan***

/2. orrialdea

***Herritarren
parte-hartzea
HAPO idazteko
prozesuan***

/3. orrialdea

***Pobeñako
igarobidea
udarako
egonkortuko da***

/4. orrialdea

***“Emakumeok
partaide...
Muskizko
historian”***

/6. orrialdea

Editoriala

Muskizko irudia berritzea

Udalerrriaren irudia berritzeko eta hura lehen baino jatorragoa, modernoagoa eta berriagoa izan dadin, ahalegin ekonomiko nahiz giza ahalegin handia egiten ari da Udalbatza. Herrigune ilun eta industrialia iraganeko kontua izan dadila lortu nahi dugu, eta Muskiz garai berrietara egokitzeko gai dela erakutsi.

Aldaketa hori lortzeko asmoz, munta handiko kontusailak inbertitzen ari gara, besteak beste, honako hauek gauzatzeko: auzoetako saneamendu-sareak berritu; ibaien ibilguak lehengoratu; baso-pistak zaindu; herritarren eskaerak direla-eta, txiki geratu diren herriegoitzak handitu; eta hondatutako hiri-altzariak konpondu.

“Gure herriaren irudi berritua lausotu dute hainbat ekintza gizalegegabek”

Gabeziarik nabarmenenak estaltzeko eta arazorik larrienak konpontzeko asmoz, ahalik eta ondoen erabili ditugu baliabideak. Ez dugu ahaztu, ezta ere, herritar ororen interesen alde lan egiteko konpromisoa hartua dugula.

Horregatik guztiagatik, tamalgarria da beraien egintzen ondorioetan pentsatu gabe hiri-altzariak eta apaingarriak hausten dituztenen jokabide gizalegegabea. Zenbait pertsonak lorategietako landareak lapurtu dituzte, zakarrontziak hautsi eta barandak margotu, besteak beste.

Lapurtutako edo hondatutako gai horiek berritzeko eta garbitzeko, beraz, kontusailak nahiz giza baliabideak erabili behar izan dira berriz ere. Hortaz, hondatutakoak konpontzeko erabiltzen den dirua ez da garrantzi handiagoko beste jarduera batzuetan inbertitzen; gizarte-ekintzan, esaterako.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea

JASO BERE GOROTZAK!

JASO ITZAZU ZURE TXAKURRAREN GOROTZAK KALEETAN ETA LORATEGIETAN

ARAU-HAUSTEAK INДАРREAN DAUDEN LEGEEN ARABERA ZIGORTUKO DIRA

www.muskiz.org



Gure kale eta lorategietan txakurren kakarik ez izatea

Informazio-kanpaina handinahia jarri du martxan Udalak, denok erabiltzen ditugun lekuak txukun mantendu beharri buruz herritarrek adeitsuki kontzientzia har dezaten. Txakur bat dugu kanpainaren protagonista. Aipatutako animalia harritu egiten da berak utzitako kaka lorategietan nahiz kaleetan aurkitzen duenean.

Kanpainak irauten duen bitartean, harridura-ikurrak jarriko dituzte udal-lorenzainek kakak aurkitzen dituzten lorategietan, hau da, txakur gehien ibiltzen diren lorategietan. Udaltzainek, beren aldetik, Udaleko zigor-ordenantzari buruzko informazio-orriak banatuko dituzte. Horrez gain, beste jarduera batzuk gauzatu dira kanpaina horren barruan, besteak beste: iragarkiak jarriko dira Muskizko auzo guztietako autobus-aterpeetan, atarrietan nahiz salto-

kietan; kanpaina berriari buruzko irudiak jarriko dira lorategietako oholetan; Udaleko zigor-ordenantzari buruzko informazio-orriak argitaratuko dira; eta hondakinak jasotzeko poltsak banatuko dira.

Quick Response (QR) izeneko kodean oinarrituko da hizpide dugun kanpaina. Kode horren bidez, Udalaren web-orrian argitaratutako arautegia zuzen-zuzenean ikus dezakete herritarrek edozein euskarri mugikorretik (hau da, smartphone edo tablet-etik), baita txakurra paseatzen ari direla ere.

Zigor-araubideari buruzko informazioa nahiz herritarrek kontzientziazteko kartelak Muskizko auzo guztietan hainbat astez jendaurrean izan daitezela nahi du Udalbatzak. Horrela, epe hori igaro ondoren, egoki diren zigorrak jarriko zaizkie arauak hausten dituztenei.

Muskiz zure sakelakoan

Tokiko erakundeen albiste nahiz berrikuntza nagusien berri izan dezakete muskiztarrek sakelakoan SMS bidez. Udaleko web-orriaren bitartez eman behar dute interesdunek izena doako zerbitzu horretan. Zerbitzuan izena ematen dutenek, bidenabar, nahi dutenean deusezta dezakete harpidetza.

Euskaraz nahiz gaztelaniaz jaso ditzakete mezuak erabiltzaileek. Gaietako argazkiak, kultur albisteak, gaietako berriak, trafiko-mozketei buruzkoak,

edo udal-zerbitzuetan izango diren aldaketan berri jasoko dute herritarrek. Mezu horiek doakoak izango dira zerbitzuaren harpidedunentzat.

Sakelako telefonora mezuak bidaltzeaz gain, udaleko web-orrian badira informazioa zabaltzeko beste bide batzuk ere, hala nola, RSS bidez datuak sindikatzea; Twitter profila; Flickr, argazkietarako; eta Youtube, bideoetarako. Aspalditik daude martxan horiek guztiak.



Herritarren parte-hartzea HAPO idazteko prozesuan

Udalerriko auzo guztiak lan-mahaietan ordezkaturik egongo dira

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) egingo duten lantaldeetan parte hartuko dute muskiztarrek. Bost lantaldeetan egituratuko da herritarren parte-hartzea. Berezko ezauzgarrien eta lurraren sailkapenaren arabera bereiziko badira ere, herriko auzo guztiek ordezkariak izango dituzte lantalde horietan. Bost lantaldeak honela osatuko dira: Pobeña eta San Julian auzoek lantalde bat osatuko dute; Rigada eta Kobaron auzoek beste bat; Meatzari eta Cantarranas auzoek beste bat; Santelicesek lantalde bat izango du; eta San Juanek beste bat.

Hiri-, landa- eta industria-eremuak definitzeko eta datozen 20 urteotan udalerririk izango dituen ekipamenduak zehazteko asmoz berrikusiko da HAPO. Zeregin horretan muskiztarrek zuzeneko parte-hartzea izatea funtsezkoa dela uste du Udalak, Plana idazten hasteko unetik bertatik.



Seinale berriak El Pobalgo bihurtuz

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak El Pobalgo errepidetik ibiltzen diren autoen abiadura kontrolatzeko ezer egiten ez duela ikusita, lehen baino seinale gehiago jartzeko laguntza eskatu dio Muskizko Udalak Bizkaiko Aldundiari. Horrela, bada, hainbat gontz jarririko dira, ingurune gatazkatsu horretan ibilgailuak manto soago joan daitezten.

Oinezkoentzako sarbidea Oiankas auzotik

Duchas, Rigada, Revilla, Laureta eta beste gune batzuetako bizilagunek oinezkoentzako sarbidea izango dute Oiankas auzotik herrigunera joateko. 80.000 euroan balioetsitako obra hau zuzenean erabili ahal izango dute Rigada auzoan bizi diren 150 familiek baino gehiagok.

Lanpostu berriak sortu ditu Forlanek

Toki Garapenerako Forlan Agentziaren bitartez, 172.000 euro inbertitu ditu Muskizko Udalak 38 lanpostu sortzeko. Besteren kontrarako 29 langile eta 9 autonomo kontratatatu dira. Onuradun guztiak langabezian zeuden, eta udalerrian bizi dira.

Mintzagai dugun ekimen honen bitartez, lanaldi osoko 8 kontratu mugagabe egin dira. Era berean, obra-amaierako 10 kontratu, obrako 2 kontratu finko, eta iraupen mugatuko 9 kontratu ere badaude. Enplegua sustatzeko planaren barruan kontratazioari eta ekintzaitzari emandako zuzeneko laguntzak lirateke Muskizko Udalak emandako zenbateko horiek.

Lanean ari dira jada kontratatutako pertsona guztiak, besteak beste, honako lan hauetan: igeltsero, lorezain, ile-apaintzaile, sukaldari, saltoki-laguntzaile eta administrari laguntzaile. Nabarmendu beharra dago, baita ere, besteren kontratazioaren bitartez 21 gizonentzakoak direla eta 8 emakumeentzakoak. Autonomoei dagokienez, berriaz, 5 gizonentzakoak dira eta 4 emakumeentzakoak.

Udalak badaki neurri horiek ez direla nahikoa izango Muskizko 600 langabeen egoera konpontzeko. Adierazi du, baita ere, udalaz gairako arazoa dela langabezia, eta udalerriko guztiok eragiten digula. Euskadin, esaterako, Eusko Jaurlaritzak du lan-kontuetan jarduteko eskumena. Hala eta guztiz ere, bere esku dagoena egingo du Muskizko Udalak, langabeen kopuruaren hazkundea eteten laguntzeko.

Langabezia zinez egoera zaila da, eta ez da hura konpontzeko duen makila magikorik. Soilik lagun gutxi batzuen egoera konpontzeko bada ere, ahaleginak merezi du.



Pobeñako igarobidea egonkortu nahi du Udalak udarako

Guztira 240.000 euro baino zertxobait gehiago bideratu ditu Muskizko Udalak Pobeñako igarobidea egonkortzeko lanetara. Lan horiek egiteko bi hilabete inguruko epea izango denez, baliteke uztaierako konponduta egotea igarobidea.

Kanpoko azterlan baten arabera, igarobidea jendeak erabiltzeko moduan egon dadin funtsezko konponketa hauek egin behar dira: kanpoko tiranteak eta bielak aldatu; metalezko elementu guztiak itsas inguruetako berezko korrosioaren kontra babestu; eta hormigoizko estaldura berritu, karbonatazioaren kontrako babes-tratamendu berria emanaz.

Pobeñako igarobidea osorik konpontzeko 428.000 euro behar dira guztira. Udaleko arduradunek, beren aldetik, Bizkaiko Foru Aldundira edo Eusko Jaurlaritzara joko dute zenbateko hori lortzeko diru-laguntzen eske. Kontusail horretatik erdia baino zertxobait gehiago behar da igarobidea egonkortzeko, eta zenbateko hori Udalak izendatu du dagoeneko. Ezkerraldeko hondartza bakarra izanik, Muskizek eta Zierbenak ez ezik inguruko udalerriek ere erabiltzen dute La Arena hondartza.



La Arena hondartzaren udako zerbitzu bereziak

Jolastokia prestatu nahi du Muskizko Udalak hareatzan.

La Arena hondartzako sasoiko zerbitzuak ustiatzeko epea luza dezala eskatu dio Udalak Kostaldean Mugaketa Sailari. Horrela, izozki-saltzaileak martxotik urrira aritu ahal izango dira, eta Garmendia taberna, berriz, martxotik abendura bitartean.

Bada beste berritasun bat ere; 400 m² inguruko jolasgunea egingo da, boleibol, saskibaloio eta abarretara jolastu ahal izateko. Informazio turistikoaren etxola, izozkien lau saltoki, Garmendia taberna eta terraza, txurro-denda eta saltoki mugikorak jartzeko tasengatik nahiz hareatzako kirolguneagatik 31.000 euro baino gehiagoko diru-sarrera izango du Udalak, betiere, 2011ko lizentzien esleipen-prezioak oinarri harturik eta aipatutako saltokiak udaldian zabaltzen badira (ekaitetik irailera).

“Igarobidea osorik berritzeko diru-laguntzak eskatuko dira



Muskizko ibaiak leheneratzeko lanak

Joan den urteko irailetik hona, Cotorrio eta Barbadun ibaien ertzak garbitu eta basoberritu dira. Cotorrio ibaiaren ibilgua Muskizko udalbarriti osoan garbitu da; Barbadun ibaiarena, aldiz, Santelices auzotik San Juan elizara bitartean. Jarduera horiekin, udalerriko ibaien ibilguak leheneratzeko plana amaitutzat joko du Udalak.

Udaleko nahiz Eusko Jaurlaritzako aurrekontuen kargura egin dira

saneamendu-lan horiek. Muskizko arduradunen arabera, behar-beharrezkoa zen lan horiek egitea, hainbat hamarkada baitziren ibaiak garbitu eta leheneratu ez zirela. Zaintze-lan horiek egin izan balira, urak ez zukeen estaliko Zendeja kallea.

Urtero ibaien ibilguetan mantentze-lanak egiteko Aldundiarekin hitzarmena sinatzeko aukera aztertzen ari da Muskizko Udala.



Haurrentzako jolastoki berria Autonomia auzoan

Muskizko haurrentzako jolastoki berria egin du Udalak Autonomia auzoan. Bat eta hamabi urte bitarteko haurrentzako jolastoki berriak 500 metro koadroko azalera du, eta 100.000 euro inbertitu dira hura egiteko. Instalazio berria egiteaz gain, beste elementu batzuk jarri dira Muskiz zaharberritzeko, hala altzairu herdoilezinezko barandak nola lorategiak eta hiri-altzariak.



Autonomia kaleko etxarteak, espaloiak eta horniketa-sarea berritzea



San Juan poligonoko Autonomia kaleko etxarteak eta espaloiak berritzeko nahiz horniketa- eta saneamendu-sareetan hobekuntzak egiteko proiektuak 4 hilabeteko iraupena eta 481.363 euroko kostua izango du azkenean.

Proiektu horren barruan, argiteriarantzako kanalizazio berria jartzea aurreikusi da, ur-sarearen ibilbide beretik joango dena. Eredu honetan duela gutxi izan diren horniketa-arazoak konpondu eta bizilagunen bizi-kalitatea hobetu nahi izan du Udalbatzak obra horien bitartez.

Zuntz-zementuzko hodiak aldatzea da obra horien helburu nagusia, gaur egun material hori ez baitago onartuta giza kontsumorako gaiak garraiatzeko.



120.000 euro larrialdiko laguntzetarako

Muskizko Udalak 120.000 euro bideratuko ditu gizarte-larrialdiko laguntzetara. Abenduaren 15a da eskaerak aurkezteko azken eguna. Horrez gain, alokairuetarako, hipoteka-maileguetarako eta etxebizitzak zaintzeko aurrekontua bere horretan mantenduko da. Ekitaldi osoan barrena gutxieneko berme ekonomikoa ematen duten eskaerei lehentasuna emango die Udalak.

Hainbat auzo hobetzeko eta berritzeko obrak

Lau bide eta hainbat bizitegi hobetzeko nahiz berritzeko obrak egin ditu Muskizko Udalak. Proiektuak esleitzeko agirietan jasotakoaren aldean 120.000 euro inguru aurreztu ditu Udalak. Mello mendira eta Laureta auzora doazen bideak berritu dira, baita Ojillo kale txikia eta Autonomia kalea ere.

Villanueva auzoko saneamendu-obren lehenengo fasea, bestetik, 42.000 euro inguruan esleitu da. Auzo guztian saneamendu-sarea jartzeko proiektuaren lehen fasea dugu jarduera hori.

Horrez gain, udalerriko erabilera publikoko mendietako 3.900 metro lineal hobetu dira, Muskizko Udalak eta Bizkaiko Aldundiak sortutako hobekuntza-funtsaren kargura. Mello, Picos eta Posadero mendietan nahiz Carrascal ingurunean egin dira lanak.

EL KAR RIZ KETA

“Emakumeok partaide... Muskizko historian”

Jostorratza eskuan eta hunkitzeko puntuan, haurtzaroko, gaztaroko nahiz helduaroko hainbat pasarte gogora ekarri dituzte Esther Barragán, Marcelina Montán, Asun Belmonte, Basilisa Miguel, M^a Teresa Aizpurua eta Miren Zubizarretak. “Emakumeok partaide... Muskizko historian” izeneko dokumentalaren harira, beren ekarpenak egin dituzte 70 eta 90 urte bitarteko hainbat emakumeek, eta, haien kontaktuzun bidez, udalerriko emakumeen talde-memoria berreskuratu da.

Pasadizoak gogora ekartzean, elkarri begiratu eta irri egin dute askotan. Beste batzuetan, aldiz, une nahiz pertsona “latzak” aipatu dituzte. Beharizan handiko eta lan gogorreko urteak izan ziren, baina ilusio handia zuten, eta zeukatzen apurraz asko disfrutatzen zuten. “Lehen, egun osoa ematen genuen kalean. Edozertan aritzen ginen jolasean: albertxikoen hezurrekin, koloretako orratzekin... Gogoan al duzue “Los tres



“Urte haietan, emakumeak etxeoandrearen zereginak baino ez zituen betetzen

navíos” kantua?”, eta hori esatearekin, abestia kantatzen hasi dira. “Oraingo haurrak ezin dira kalean ibili gu ibili ginen bezalaxe. Beste garai bat bizi dugu orain, arrisku gehiago baitago... Eta denetarik dute –diote–, orain beste gauza batzuekin entretzen dira; ordenagailuan, play-arekin jolasean. Ez dute, ezta ere, guk geneukan denbora librea. Orain denetarik egin behar dute: ige-rian, balleta eta abar”.

Sagarretara joaten zireneko garaia ekarri dute gogora, eta helduxeagoak zirenean, dantzaldietan dibertitzen zirela. “Oroitzen al zarete ‘Tenderillo’-arekin? Nola zuen izena? A, bai! Fidel! Akordeoia jotzen zuen, eta semearekin etortzen zen”. Garai hartako abestiak ahopeka kantatzen dituzten bitartean, Udaleko musika-bandarekin oroitu dira, baita Muskizera etorri ohi ziren komediekin ere, “ohe-estalkia edota anis-

botila zozketatzen zuten. Eta argazkiak egin genituen!”, barre egin dute haien artean.

“Baina une gogorrak ere bizi izan genituen. Borroka biziak eta greba handiak egin genituen gure eskubideak aldarrikatzeko. General Electric enpresan egin nuen lan. 6.000 langiletik gora ginen bertan. Garai hartan ez zen begi onez ikusten emakumeek lan egitea. Baina amak ez zuen etxean alferrontzirik nahi, eta aukera izan bezain laster lanean jarri ginen. Zenbat zor diodan amari!”. Egiazki, etxean eta haurrak zaintzen egon behar zuten emakumeek garai hartan. Zenbaitek, ordea, etxetik kanpoko lanarekin uztartu zuten etxe-barruko beharra. “Ni ere aritu nintzen lanean, Somorrostroko lanbide-eskolan. Garbiketa-lanetan aritu nintzen, eta ikastetxeko nagusi izatera heldu nintzen”. “San Pedro ematen zenuen-eta hainbeste giltzekin!”, esan diote lagunek.

Castaños errekan zuhaitzak landatu zituzten gazteek

Castaños erreken ingurunean eta Glorieta mendian 350 zuhaitz landatu dituzte lau ikastetxetako 7 eta 14 urte bitarteko ikasleek. Zuhaitzaren egunaren barruan egindako babeserritze horretan, haritzak, lizarrak eta hurritzak landatu dituzte.

Europar badira negutegi-efektuaren kontra eta atmosferara aineratutako anhidrido karbonikoaren kopurua murriztearen alde borrokan ari diren zenbait hiri. Muskiz hiri horien pareko izan behar dela eta hiriko eremu berdeak zaindu behar direla konturatze-ko balio izan zaie aipatutako jarduera Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei.



“Euskara txartel” berria

Euskararen erabilera sustatzeko programan parte hartzen duten haurrek euskara txartela dute. Horrela, Muskizko Udalak antolatutako jardueraren batean parte hartzen dutenean, zigilu bat jartzen zaie txartelean. Zigilu guztiak dituztenean, saria dute haurrek; hala antzerkirako sarrerak nola euskarazko liburuak.

Duela gutxi, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jardunaldiak egin ziren Lasarte-Orian. Jardunaldi horietan, Gurasolagun programa eta “euskara txartela” saritu zituzten ardura-dunek. Egun martxan diren bi ekimen horien bidez, euskara eskolatik kanpo erabiltzeko gogoia piztu nahi da heldu nahiz gazteengan.